



GAURKO EGUNEZ HASITAKO IBILBIDEA

1998. urtean sortu zen Tolosako Orfeoia, eta hamar urte hauetan pixkanaka handituz joan da >7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-10-26

VIURTEA 1.543.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ikustera, dastatzera eta eroatera jende ugari gerturatu zen atzokoan Tolosa Goxua azoka berezira. R. CALVO

Axun Aierberen 'Itzulpen- estrategiak' liburua aurkeztu dute

IBARRA Duela gutxi zendu zen euskaltzaleari omenaldia egin zioten herenegun **3**

22 eta 21 galdu du Mikel Olazabalek Juantxo Kokaren aurkakoa

ARESO Lau t'erdiko Euskal Herriko Txapelketaren final zortzirenetan atzo, Labriten **6**



Rolleski igoeraren une bat. A. IMAZ

Rojo eta Hernandez irabazle Rolleski igoeran

HERNIALDE 68 parte-
hartaile izan ziren **6**

GOZOZALEEN PARADISUA

TOLOSA Jende ugari izan zen Tolosa Goxua azoka berezian; tarta eta txurroak banatu zituzten, eta Maritxu Astiazaran eta Lorea Mendizabal izan ziren sagar-tarta lehiaketan irabazleak **4**



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako DENAK tabernan eta HITZAko Tolosa eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



Zibilak esan naute



» Uzturretik

Felix Irazustabarrena

Biziro egoki, Tolosan behar dela gauza erabaki «Lasa eta Zabalen omenaldia eragotzi dute eretzainek Tolosan».

... giltzapean sartu naute poliki-poliki, negar egingo luke nere amak baleki. «Ertzaintza behin baino gehiagotan oldartu zen manifestarien aurka eta sei lagun eraman zituen»

Iparragirrek duela ehun eta berrogeita hamar urte idatzitako zortziko txikia eta aste honetako titularrak nahasian jarri ditut. Ez du lotura nabarmenega behar bada, baina kantuan hasteko balio du behintzat.

Kantu eta lotura desberdinak dira ondorengoak. Garzonek 36ko gerra osteko krimenak ikertzea iragarri berri duenean, bi Tolosarren desagertze, tortura eta hilketak gogoratzea debekatu du. Gertakariak badituzte antzekotasunak, gertatu zirenetik urteetara aurkitzea gorpuak, bertako hobi komunaren irudiak, errudunak babetuta egoteak... baina, behar bada lehenengo ekimenetik nahiko urrutiratu direla uste dute eta

bigarrengeotik gertuegi daude oraindik.

Batzuk aginduak eman eta besteak bete, gogotsu bete ere. Gorpuak Tolosako hilerria ekarri zituztenean bezala oraingoan ere, herri honen, gure, edo behintzat batzuen, memoria historikoa indarrez etetea erabaki dute.

«Zergaitik ez dituzte eskuak garbitu?» galdetzen zuen Urretxuko kobleriak hurrengo bertso bukaeran. Lotuta joan dira hemen ere PSOE eta EAJ, Espainiako aurkorekintuetan bezala. Hor ez dagoela loturarik pentsatuko du bakarraren batek, baina negoziaren inguruan, herri honetako sektore batzuen kontrako errepresioan, apustuak zer norantza behar duen

azaleratzean, orain arte beti lotuta agertu izan zaizkigu.

Egingo zela hitz eman bazuten ere, atzo ez zen kontsulta eguna izan. *Hitza hitz* lemapean, hitza ukatzeagatik bezperan akordiodi-de ziren eta gure herrian alanbradak jartzen ari direnen aurka protesta egin zuten. Kontsultarena «epe luzerako egitasmoa» dela diote orain, beraz lasai.

Hitzaren aldeko atzoko eguna seinatuagoa ere bazen, gure probintziotan foruak kendu zituzteneko urteurrena betetzen zelako, eta hori ere aldarrikatu nahi omen zuten. Furuak galtzearen inguruan Txirritak bertso sorta jarri zuen ... *erdara etzan bakarrik kapaz, euskarak lagundu diyo abestu zuen, edo hark idatzi eta guk abestu. ... enpeñatzia ezpada libre alperrik degu indarra/hau da txoriyak gari tartian gosiak egon biarra!*

Z Zenbakia

40.000

■ **Abeslari.** Datorren asteazkenean, hilaren 29an hasiko da 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta. 40 urte hauetan 1.000 abesbatza inguru igaro dira Tolosatik, eta denera, 40.000 abeslari inguru aritu dira kantuan.

■ **20 abesbatza.** Aurtengo edizioari dagokionez, hainbat lurraldetik etorritako 20 abesbatza ariko dira. Hauetatik aipagarriena Taiwango Taipeiko Formosa Singers abesbatzarena da, lehendabiziko aldiz hartuko baitu parte lurralde horretako koru batek. Aipatzekoa, baita ere, Mikrokosmos frantziarrek eskainiko duten kontzertu berezia.

K Komikia

Gorka Salaberria



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala
Tolosa (Bellatokia)

Giroa gozoa nagusi, larunbateroko azokan

Azoka » Bisitari ugari izan zen Tolosa Goxua azoka berezia dela eta; apaingarri postuetan hasiak dira eskaintza handitzen.

PABLO ALBERDI

Atzo Tolosa Goxua azoka eguna ospatu zen Tolosako kaleetan. Bisitari asko gerturatu ziren, eta asteroko azokaren giroa oso polita sartu zen goiza aurrera zihola.

Berdura plazako giroa ere animosoa izan zen, eta apaingarriko postuetan bizitasun handia izan

zen. Datorren astean Santu Guztien Eguna izango dela eta, saltzaileek ostegunetik hasiko dira enkarguak jasotzen beraien berdura plazako postuetan, bai ostegunean, ostiralean eta larunbatean ere. Atzo ere jaso zituzten, eta ikusita-ko eskaintzak ere gorae gin zuten.

Zerkausian posturik ez

Zerkausira salto bat eginda, hantxe posturik ez zegoela ikusi ahal izango genuke. Dirudienez berogaileu sistema hobetzen ari dira, eta obra horiek direla eta, postu guztiak triangulora pasazituzten atzokoan.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA

PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Erroneroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Ziklamena	5,50	-
Azalea	8,50	-
Xarbotia	4,00	6,00
Klabeledina	2,80	4,00
Kalendula	2,50	-
Surfinia	2,40	-
Lobelina	4,50	-
Biola	3,00	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Kuletroa	30,00	-
Nikaloa	20,00	-
Mendiko angula	16,00	-
Gibelurdina	24,00	-
Ziza horia	24,00	30,00
Onddoa	14,00	24,00

Fruta

Mizpiradia	3,00	-
Sagar gorria	1,50	-
Errezil sagarra	1,00	-
Pikua	4,00	-
Gaztaina	3,00	-
Urta	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (kiloa)

Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Ibarrako piparra	4,00	7,00
Tomatea	2,00	4,00
Porrak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00

Barazkiak (sorta)

Roblea	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	3,00

Barazkiak (unitatea)

Kalabazina	0,72	-
Azalorea	1,00	-
Txikoria	1,00	1,25
Trebisoa	0,90	-

Besteak

Arraultzak	1,10	2,40
Artisau ogia	2,80	3,70
Irasagarra	3,00	6,00
Ogi biologikoa (900 gr.)	3,20	-

Gaztak

Gazta berria	16,00	-
Ardigazta	14,00	18,00
Behi gazta	7,00	7,50

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Fruta

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak

Kalabazina	1,60	3,04
Baratxuria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00
Tipula	1,75	2,00
Letxua	1,00	-

Besteak

Ahuntz gazta (200 gr.)	3,00	-
Ogia	2,55	-
Arraultzak	3,50	-

Zirt edo zart



» Herrira begira

Aimar Sagastibelza

Pasa den asteburur lortu giñu-zen hiru puntukin klasifikazioan gorakadaxo bat eman du eta hortxe gaude goiko postutatik nahiko ondoan. Egoera ikusita edo, hemengo prentsa oso optimista dau eta dagoneko aidade igorran espekulazioekin ta holako fantasiakin.

Zoritzarrez holaxekoa da alde guzitako prentsa, gauzek ongi dituztenen petxue atezten due harroharro taldea gorai patuz, gauzek

okertzen dienen, berriz, problema bihurtzen da, aspektu guzitako erasoak iniez ekipoai eta jokalariri. Eztie situazioak eskatzen don jokatibidea eukitzeko gai. Beño beno, hau beti pasatu den gauze da eta beti pasako da.

Oaintxe da era hontako gauzek alde baten utzi eta ahal dun puntu gehiena atezteko garaie. Nere usetez tenporadako momentu inportantenetako baten gaude; izan e, hurrengo 4-5 partidun hotan atezten dittun puntun arabera ikusio daze helburungatik burrukaturko dun aurten. Eta gauze jakie da ze politte izan ditteken goiko alden ibiltzea tenporadan zehar, beño aldi beren bakiu ze infernue den mantentzeagatik sufritzen eottea. Denborak jarriko gatto mezitako lekun.

Dena den, taldea oso ongi ikusiten eta egie esan suertea asko launtzen aida, lesionatu eta santziona-

tu gabe baigaude. Beraz, zalle da momentuz nik aukeran bat eukitzea. Izan e, ekipoan gauden 25 jokalaritatik 18 bakarrik die momentuz ligan debutatu duenak. Zortzi partidun jokatu dittula kontutan hartuz, jende dexente gaude minutuik izan ez tunak, batez e atzelarik. Beño beno, lanen segi behar esperantza guzikin.

Futbola alde batea utziz, urrin bukaerara aiatzten aiga eta uso ehiztarik asetu gabe oaindik! Eun hotan nere lagun ehiztarik hiko tzein ondoren garbi ikusi dot gehienak desesperatu antxak dabilzela usoaikin. Urteroko kontue. Alde guzitatik aitzakie eta esperantza. Sekulen eztau jakiteik seguro, beño datozen eun hotan izaten denez normalen muimendu handina, oaintxe suertea duen gutxi batzuk disfrutatuko due, gainontzeako itxoin inbehar.



Hitzek ez dutelako Axun ahaztuko

IBARRA » Orain gutxi zendutako Axun Aierbe ibartarraren *Itzulpen-estrategiak* izeneko liburua aurkeztu zuten herenegun Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean. Senide, lagun, idazle eta Euskal Herriko Unibertsitateko aurpegi ezagun asko gerturatu zen herrira Aierberri omenaldi xumea egiteko. Liburuaren aurkezpena egin eta gero lore sorta ere eman zioten txalo artean Axun Aierberen ama hunkituari. R.CALVO

tateko aurpegi ezagun asko gerturatu zen herrira Aierberri omenaldi xumea egiteko. Liburuaren aurkezpena egin eta gero lore sorta ere eman zioten txalo artean Axun Aierberen ama hunkituari. R.CALVO

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Tolosako gozogleek egindako sei metroko tarta banatu zuten atzokoan San Frantzisko pasealekuan. R.CALVO

Gozozaleen festak hartu du kalea

Gastronomia » Ez zen erreza izan atzo goizean San Frantzisko ibiltokia aldetik aldera igarotzea, Tolosako Goxua jaia hartu zituen bazter guztiak.

REBEKA CALVO

Goiz hasi zen atzoko gozoaren Tolosa Goxua Jaia. Goizeko zortzietarako gozogle guztiak prest zuten guztia; sagar-tartak, txokolataak, era guztietak bizkotxoak, bonboiak... Hamarretarako San Frantzisko pasealekuko bazter guztiak gozozalez beteta zeuden, batzuk erosketak eginen, Tolosako gozogleek egindako 6 metroko tarta erraldoia noiz banatuko zain besteak.

Frontoiko txurro-dendan ere jende askok gosaldu zuen atzokoan, izan ere 09:30etik aurrera 2.015 txurro banatu zituzten hurbiltzen zirenen artean. Bertako langileak ahal zuen moduan egiten zion aurre txurro eskaerari, «gaurkoan bai, gaurkoan ari gara erruz lanean», esan zuen umoretsu. Azokan parte hartzeko bildutako postuen artean Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkartearena ere bisitatu ahal zen. Bertan, 2 euroren truke, Gorrotxategi konfitegiak emandako txokolata eta Arruabarrena gozoek emandako gozoak saldu zituztelarik dirua biltzeko.

24 partaide lehiaketan

Sagar-tarta lehiaketa ere goiz xamar hasi zen, hamarretarako han ziren parte-hartzaile guztiak euren obrek.

24 partaidek hartu zuten parte lehiaketan eta horietako hiru besterik ez ziren gizonezkoak. Tolosaldeko partaideek hartu zuten parte lehiaketan, baina baita Leioako Sukaldaritza Eskolakoek ere, edota Pasai Donibanetik etorritakoak. Azkenean, hala ere, gurean geratu zen saria, eta noski, emakumezkoen artean. Izan ere, Tolosako Maritxu Astiazaranek eraman

zuen lehen saria, hori bai, «Tolosan bizi naiz baina nafarra naiz», argitu nahi izan zuen. Ez da saria eramaten duen lehen aldia, «gutxienez hirugarren aldiz edo irabazi dut», argitu zuen. Bere sekretuari berri ere jakin nahi izan genuen eta hauxe erantzun zuen: «Gustu handiarekin egiten dut beti sagar-tarta, oso gustuko dut eta. Erabiltzen ditudan sagarrak ere oso onak izaten dira, asko begiratu diot erabiltzen ditudan osagai guztiei». Bigarren saria Ibarrara joan zen, Lorea Mendizabalen eskuetara. Harrituta zegoen ibarrara, eta ez zekien zergatik irabazi zuen, inguruko tartek ere itxurabikaina zutela esaten zuen eta. Irabazleek Tolosako gozogintzako produktuekin osatutako sortajaso zuten, 200 euroko baliokoa, zehazki, eta bigarren goak, aldiz, 150 euroko sortajaso zuten.

Epaimahaiko kideek, Eva Argiñanok, Lourdes Rekondok, Jose Mari Gorrotxategi eta Allarizko gozogle batzuk, zapoaren orekari erreparatu zitela esan zuten. Argiñanok orokorrean oso maila altuko tartak probatu zituztela argitu zuen, eta batez ere, bukaeran utzitako zaporea zela garrantzitsuena argitu zuen.

Goizean zehar jende asko gerturatu zen, hortaz, Tolosa Goxua jaiarekin gozatzeraz, horien artean Galizatik etorritakorik ere bazen, gainera, BNG alderdiko buru den Anxo Quintana ere San Frantzisko pasealekuan baitzebilten, oraindik ere Tolosa gehiegi ikusteko aukerarik ez zuela izan azaldu zuen, baina ikusitakoa, behintzat, asko gustatu zitzaioela. Tolosako Dulzaineroak ere ibili ziren giroa gozoa alaituz.



24 sagar-tarten artean bi hobereak aukeratu zituzten epaimahaiko kideek. Txurroak ere banatu zituzten. R.CALVO



Maritxu Astiazaran izan zen lehen sariduna. R.CALVO



Bigarren saria Lorea Mendizabalek irabazi zuen. R.CALVO

Tolosako Udala

IRAGARKIA

2008ko urriaren 16an izandako Osoko Bilkuran, gheingo absolutu legalaren aldeko botoekin 2009. urteko urtariraren itetik aurrera Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzea eta Zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko Ordenantza orokorra onartzea erabaki zuten.

Hartutako akordioak Udaltzako iragarki taluan ageri dira 30 egun abiletan zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun abiletik hasita.

Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioarik edo oharirik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik behar.

Tolosa, 2008ko urriak 17an. ALKATEA



Goiz osoan zehar egon zen azokan era guztietako gozoak erosi eta probatu ahal izan ziren; tarta desberdinak, bonboiak, pastelxoak, pastak... R.CALVO



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kizpo)

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazio hileko luote erosoten
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezia honen interes-tasa 2008rako %3,25ekoa izango da iCredigas. Gaurko tarifa badiuzu, eze 65 urteretako berrira, 570 € (inorko duzu; halaber ez baduzu, 270 €) jasoko duzu. Prestoa guk garabeharria da, barietate instalazio egiteko, konderbuzo-galdara inonkara iraberrari eta 6 erroldatze (40 elementu) parteko. Promozio estandararen gainera edozein akordioa, opariko aukeraketa izango da. Promozio honek ez du balio, Naturgas Energia Comercializadora, S.A.rikin harikuntza alda egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



naturgas
energia



Errepideko eskietan behetik gora

HERNIALDE ● Alpino Uzturrek Hernialden Rolleski igoe-
ra antolatu zuen atzo. Bertan 68 partaide iritsi ziren
helmugara. Patinatzaile eran, helduetan irabazleak
Rojo eta Elisa Hernandez izan ziren. Haurretan, Iñaki

Ahetsu eta Miren Aznarez. Modu klasikoan, irabazle-
ak honako hauek izan ziren: helduetan, Oier Gofñi eta
Maialen Lopez. 15 urte bitarteko haurretan, Iñaki Al-
danondo eta Enar Etxeberria. **ASIERIMAZ**



Bonberenean kirola eta kultura

TOLOSA ● Iragan asterako aurreikusia baldin bazegoen ere, atzo ospatu
zen Skate Txapelketa eta graffiti erakusketa. Arratsaldean, Bonberenea-
ko hormetan, bost graffiti-egile ibili ziren artelanak sortuz. Ondoren Ska-
te Txapelketa jokatu zen eta gauean musikaren txanda iritsi zen. Gaur
berriz, 22:30ean, Esne Beltza eta talde japoniar batek joko dute. **ASIERIMAZ**



Lehiaketarako entzumenak berotzen

TOLOSA ● San Frantzisko elizan Abesbatza Lehiaketa
berotzeko, urtero bezala Topaketa ospatu zen atzo-
koan, hau da, Gipuzkoako hiru abesbatza elkartu zi-
ren 20:00etan erakustaldia eskaintzeko. Bakoitzak

bere abestiak lantzeaz gain, hiruren artean emankizu-
nak ere eskaini zituzten. Zuzendari lanetan Jose Ma-
nuel Tife aritu zen. Aurten, Hondarribitik, Donostiatik
eta Arrasatetik gerturatu ziren abesbatzak. **A. IMAZ**



Ilargipean kirolaz gozatzeko aukera

TOLOSA ● Alkoholimetroaren test-ean 0,0 emaitza eman zutenek, Kirol
Gauaz gozatzeko aukera izan zuten atzokoan Usabal kiroldegian. Baldin-
tza honen arabera, 20:00etan hasi eta 01:00ak arte, saskibaloia, futbola,
cicling-a, karts-en erakustaldia, karting-a, goming-a eta abarretan parte
hartzeko aukera izan zuten partaideek. **ASIERIMAZ**

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria.** Ostiral eta larunbat
iluntzetan, sukaldari gixa aritzeko
pertsona behar dugu. Deitu:
699 71 02 73.

■ **Ileapaintzailea.** Ileapaintzailea
behar dugu Anoetan, asteburue-
tan lana egiteko. 615 76 77 64.
axisander@yahoo.es

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Artzai-txakurra galdu
dugu, Tolosako tren geltoki ingu-
ruan. 627 45 99 19.

ALOKAIRUAK

■ **Gelak.** Donostian, Antxo Jakitu-
naren etorbidean, pisu konpartitu
batean bi gela alokagai, neska ba-
narentzako. Bata 240 euro eta
330 euro bestea. Deitu arratsal-
dez, 943 11 10 88.

BESTELAKOAK

■ **CD-a.** Zure LP, Casete eta VHS
kuttunak CD-ra pasatzeko prest
nago. 943 69 41 10. atxega@teledi-
ne.es

■ **Trikitixa.** Si bemol tonuko trikiti-
xa erosiko nuke. 943 69 41 10.
atxega@teledi.es



Gorrentzako nazioarteko filmak

TOLOSA ● Gorrentzako Euskal Herriko lehen zine jaial-
dia ospatu zuten atzo Hirukide Eskolapioak ikastetxe-
an, Gaintzen elkarteak antolatuta, hau da, Tolosal-
deko eta Goierriko gorren elkarteak. Bertan, nazioar-
teko sei film labur ikusteko aukera egon zen,
zazpigarrena ez baitzen Tolosara iritsi. Film laburrek,
ulertzeko eta ildo jarraitzeko, zeinu hizkuntzaren au-
kera eskaintzen zuten. Horretaz gain, gorphuz eta aur-

pegi adierazpenak azpimarratzen zituzten. Ikuskizu-
narekin hasi aurretik, Eskolapioetan bildu ziren nazio-
arteko gor guztiek, harmailetan familia argazkia atera
zuten. Isiltasunean baina isildu ere egin gabe aritu zi-
ren berrikerian, aspaldiko lagun eta lagun berrien
berotasunean. Guztira ehun lagun inguru elkartu zi-
ren atzo Tolosan, Nazioarteko Gorren Zinema Jaial-
diaren harira. **ASIERIMAZ**

Lau t'erdikoan Olazabalek tanto bakarragatik galdu du

Areso » Juantxo Koka
botez gehiago izan zen eta
Olazabalek azken pilotan kale
egin zuen, atzo, Labriten.

ASIERIMAZ

Asegarce enpresako arduradunak
burumakur utzi zituen Mikel Ola-
zabalek astelehenean Beotiba-
rren. Atzo ere urduri zeuden, par-
tida eskaini zuen telebistako aur-
kezleak entzutea nahikoa zen
horretaz jabetzeko. Enpresak en-
presa, 22 urteko pilotari gazteak
gogor egin zuen borroka Iruñako
Labriten.

21-21 eta txapera

Botez Koka nagusitu zen. Airez
Olazabal. Baina azken tantoa airez
galdu zuen aresoarrak eta 22-21
galdu zuen Lau t'erdiko final zor-
tziarenetako partida. Bi pilotari-
ek ikuskizun ederra eskaini zuten.



10. urteurrena dela eta, Jesus Guridiren 'El Caserio' zartzuela eskaini zuen Orfeoia pasa den asteburuan, Leidorren. NEKA

1998ko ekainean estreinatu zen 'Leidor' operak eragin zuen Tolosako Orfeoiaen sorrera; urte hauetan guztietan emanaldiak eskaintzen aritu ondoren, gaurko egunez ospatuko du hamargarren urteurrena.

Musikaz beteriko hamar urte

HARRIET BELLOSO

Urriaren 26a etorkizunean gogoan egongo den data izango da Tolosako Orfeoiaentzat. Gaurko egunez bere hamargarren urtemuga ospatuko dute eta hori dela eta ekitaldi bereziak antolatatu dituzte. 13:00etan San Frantzisko elizan egingo den elizkizunean abestuko dute elkarrekin kultural bezala eskaini zuten lehen kontzertua ospatzeko; ondoren, bazkaria egingo dute Fronton jatetxean, 28 Kanalak euren ibilbideari buruz egin duen erreportaia ikusiko dutelarik.

Bertako kideek azaldu bezala, «Orfeoia herriko gazteen artean musika sustatzeko helburuarekin» sortu zen eta, «nahiz eta hasitapenak gogorrak izan», aurrera ateratzea lortu dute. Musika munduan urte gutxi daramatzan arren, bere ibilbide laburrean une paregabeak eskaini ditu, Tolosaren 750. urteurrenako kontzertua, esaterako.

Historia interesgarria

Egun ezagutzen dugun Orfeoia-aren jatorria ezagutzeko 1901 urtera jo behar dugu. Urte horretan Eduardo Mokoroak Orfeon Tolosano izenekoa sortu zuen eta bertan Tolosako eta eskualdeko 100 ahots nahasi baino gehiago bildu zituen. Taldeak emanaldi ugari eman zituen Euskal Herriaren z-

har baina 1913. urtean banatu egin zen.

1998ko ekainean *Leidor* opera estreinatu zen. Garrantzia handiko obra hau antzetzeko kalitatezko koru bat behar zen eta une horretan Tolosako abesbatzak ez zeuden prest proiektu horri aurre egiteko. Herriko korista eta musikari guztiak obra eszenikoan parte hartzeko gonbidapena jaso zuten eta azkenean berrogeita zortzi kantariz osaturiko abesbatza sortu zen. Leidor, Eresoinka eta Abeslari Lagunak abesbatzeta kideekin osatutako korduak «izugarrizko arrakasta» lortu zuen Mokoroaren operarekin. Taldea indartzen joan zen eta San Joan gaueko kontzertuan parte hartzeko gonbidatua izan zen. Gertaera hauek abesbatza handi bat sortzearen ideia indartu zuten, eta horrela, urte horretan eratu zen Tolosako Orfeoia.

Orfeoiko zuzendariak Tolosaldeko eta Euskal Herriko kantu zaharrak berreskuratu nahi zituen zuzeneko emanaldietarako. Hala ere, lehenengo urteetan bi arazo nagusienekin egin zuten topo, «ekonomia eta gazteen partaidetza eskasa. Antzetzten diren obrak oso garestiak dira, eta diru laguntzarik ez badago ezinezkoa da tamaina hauetako ikuskizunak aurrera ateratzea». Gainera, garai horretan kantari faltak ez zuten asko

lagundu. «Abesbatza batean egoiteak denbora asko eskatzen du, entseguak ugariak eta gogorrak izaten baitira». Orfeoiko kideen esanetan, «Udalaren laguntza funtsezkoa izan zen indarra hartzeko». Pixkanaka jende berria sartu zen eta guztien artean proiektu hau aurrera atera zuten.

Itzaletik ateratzen

Orfeoia kontzertu eta emanaldi ugari eskaintzen hasi zen, baina artean nahiko ezezaguna zen Tolosaldeko herritarren artean. «2006an iritsi zen Orfeoia-rena; Tolosaren 750. urteurrenako ospakizunen baitan ekitaldi berezia antolatu zuten Leidorren. Ikuskizuna oso arrakastatsua izan zen eta taldeak azkenean aspalditik merezi zuen errekonozimendua lortu zuen». Gipuzkoako agertoki musikalean leku bat egiten hasi zen eta Euskal Herriko hiriburuetan kontzertu «ikusgarriak» eskaini zituen.

Hamar urte abesten

Orfeoia herri txikietan abesten hasi zen, beranduago eremu handiagoetara pasatzeko. Oraingoz obra eta ikuskizun bereziak egin dituzte, eta «hauek egiteko diru eta denbora asko behar denez, urtean zehar lau edo bost egiten ditugu soilik».

Nahiz eta gauza asko behar di-

Eugenia aretoan abesteko gonbidapen asko jaso dituzte eta Aste Santuetan erlijio obretan oinarritutako emanaldia abesten dute. Hala eta guztiz ere, «ibilbideko unerik hunkigarriena» Medicos Mundi GKerekin batera antolatatu zuten kontzertua izan zen. Musikaldi «errepikaezin» hau Donostiako San Vicente elizan izan zen eta bertan Mozart eta maila bereko autoreen obrak abestu zituzten.

Etorkizunera begira

Orfeoi gazte honentzat etorkizunak garrantzi handia du eta hau gazteen eskuetan, edo kasu honetan ahotsetan, dago. «Horretarako, musika klasikoaren kultura Tolosako eta inguruko herrietako umeen artean zabaltzea beharrezkoa da». Orfeoiko kideak ikastetxetan abeslari gazteak bilatzen aritu dira baina, «tamalez, harrera nahiko hotza izan da. Duela bi urte lagun talde handi batek abesteko gogoia zuela adierazi zuten eta entseguetara joaten hasi ziren. Saio batzuk burutu ondoren taldea uztea erabaki zuten, denborarik ez zutela eta ikasketak garrantzitsuagoak zirela argudiatuz». Esperientzia hau ikusita, egitasmoen baitan dagoen gazte korua aurrera ateratzea nahiko zaila dirudi.

Bestalde, datorren urteetara begira proiektu interesgarri asko egiteko asmoa dute. Horietakoa bateszenatokia nola mugitu, musika oinarriak edo teknika bokalak erakutsiko dituen kantu eskola da. Hezkuntza zentroa izango da, baina Tolosako kultur garapena bul-tzatzeko ere balioko du. Bertan, hezitzaile eta korista berriak prestatzeko ikastaroak antolatuko dituzte. Egitasmo honen atzean Jose Ramon Arteta aurkitzen da. Urte hauetan Orfeoia-rena ondoan mantendu da eta zentro honetan jarduerak desberdinetako irakasle izango da.

Duela hamar urte hasi zen proiektu honek oztopo asko aurkitu ditu bere bidean, baina egoera guztiak trebeki saihestu ondoren Euskal Herriko areto garrantzitsuenetan abestera iritsi da. Arazo ekonomikoak agertzen ez badira eta jende gaztea sartzen hasten bada Orfeoia-urrez bustitako etorkizuna izango du.



Hamar urte hauetan Orfeoia-areto garrantzitsuetan abestu du. 15



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Lizartza.** Herritar talde batek Elkartasun Eguna antolatuta du azaroren 1erako: 10:00etan dultzaineroak 13:00etan zanpazarrak, 14:00tan txaranga, 14:30ean zikiro jatea izango dira, ekitaldi desberdinetarako dirua biltzeko. Txartelak hilaren 23a baino lehen erosi behar dira 22 eurotan Lizartza, Oresa, Ibarra, Tolosa, Irura eta Anoetako ohiko lekuetan eta Arribeko surtidorean.

Dantza

■ **Aduna.** Asvineneak antolatuta, ekialde-ijito dantza ikastaroa. Idoia Garai izango da irakaslea eta goizean, 10:30etik 12:30era eta arratsaldean, 15:00etatik 18:00etara emango du ikastaroa.
■ **Alegia.** Dantzari Txiki Eguna: 10:00etan dantzariak eskolako patioan elkartu egingo dira; 10:30ean kalejira Larraitz auzoan zehar; ondoren Elorri frontoian haiketako; jarraian Kalebeherako parkera kalejiran; aurretik, Agurra eta bukaeran Fandango eta Arin-arina.

Musika

■ **Tolosa.** Tex & The sun flower (Japonia) eta Esne Beltza taldeen kontzertua Bonberenean, 20:00etan.

Kultura hamabostaldia

■ **Oresa.** 09:00etan Uitzi-Oresa arteko ibilaldia, 14:00etan herri bazkaria, eta ondoren Bertso Zaku-toa izenburupean, kantu saioa izango da Antton Iztueta-ren eskutik.

Zinema

■ **Tolosa.** Gaur: *Viaje al centro de la tierra*, 17:00etan; *Yo servi al rey de Inglaterra*, 19:30ean eta 22:00etan. Bihar (ikuslearen eguna): *Yo servi al rey de Inglaterra*, 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

Bihar

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri irizitien erantzunik.



Guztiak balio ote du amodioan?

TOLOSA ● Amodioa, eta leial izatea. Zure bikotea ez den batek erakartzen zaituztenean leiala edo fidela al zara? Edo desleiala? Edota zure buruarekin leial izateko erakarri zaituen horrekin joan beharko zenuke? Hauek izan ziren herenegun *Evolution & Love* emanaldian hausnarketarako eman zituzten gaietako batzuk. Antzerkia, dantza eta musika uztartu zituen ikuskizun berriaren estreinaldia izan zen, hain zuzen ere, Leidor aretoan, eta jende ugari gerturatu zen hura ikustera. Taula gainean, berri, berderatzi musikari, hamar dantzari —eskualekoak gehienak— eta bi aktore dantzari, Oihana Maritorea eta Fernando Ruiz, hain zuzen. Musika eta dantza biak zuzenean eskaini zituzten, eta gainera, ohiko dantzetatik urruntzen den ikuskizun berriaz geroz gozatzeko aukera izan zen. Narratzaile lanetan aritzen Iban Garate aktoreak eman zuten erantzuna emanaldian zehar eginiko galderari: «Azken batean amodioan guztiak balio du». Erantzun egokia ote da? NEKA

A Agurrak



Zorionak!

Josefa Otamendi (Amezketak). Hilaren 24ean 100 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

